

2025-2028
SOLDATA IGOERAK

2025eko abendua

Jarraian dituzue EAEko hezkuntza publikoko irakasleон soldatetan hurrengo lau urteetan izango ditugun igoerak:

• Akordio arautzailea-Lan Hitzarmena [2025eko maitza]:

Euskal Herria da euskal langileon lan baldintzak negoziatzeko markoa eta hemen erabakitzea, gure aldarrikapen nagusia. 15 urteren ondoren gure soldata bertan negoziatzea eta adostea lortu genuen, %7ko igoera sinatuz.

• Estatuko igoera [2025eko azaroa]:

Espainiako Gobernuak eta sindikatu zentralistek borrokari uko eginez, estatu osoko langile publikoentzat lau urtetarako %11ko igoera adostu berri dute. LABen iritziz, Madrilen adostu behar dena negoziazio eremua Euskal Herrira ekartzea da. Soldataz gain, bertako langile publikoen lan baldintza guztiak Euskal Herrian negoziatzeko eta adosteko.

URTEA	LAN HITZARMENA 2025	ESTATUKO IGOERA	GUZTIRA
2025	+ %2	+ % 2,5	+ % 4,5
2026	+ % 2,5	+ % 1,5-2	+ % 4-4,5
2027	+ % 2,5	+ % 4,5	+ % 7
2028	-	+ % 2	+ % 2
GUZTIRA	+ % 7	+ 11 %	+ % 18

LABek Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta Madrilen ordezkaritza duten euskal alderdiei norabide honetan lan egin dezatela eskatzen die. Hitzetatik ekintzetara pasatu, eta Aurrekontu Orokorretan euskaldunon lan baldintzak, **enplegua eta soldatak Euskal Herrian erabaki** ahal izateko neurriak adosteko.